

azpeitianzer?

udal aldizkaria

166. zenbakia
2014ko ekaina

Udal laguntzak

*Gazteei, industria eta herritarrei
zuzendutako 2014 urterako
diru-laguntzak emango ditu Udalak*



Plaza.

*Etorkizuneko
plaza erabaki du
herriak*



Igerilekua.

*Igerilekuaren
eraikuntza
handitzeko lanak*

ale honetan zer?

- 3 Zerbitzuak eta erabakiak
- 4 Eskolako agenda 21
- 5 Plazako galdeketa
- 6 Hemenbuy
- 7 Igerilekuko obrak
- 8 Udal laguntzak
- 15 Motxak
- 16 Igerileku irekia

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi
arren, zure etxean jaso
dezakezu Azpeitian Zer?
aldizkari hau posta bidez.
Egin eskaria 943 15 71 85
(Alkatetza) telefonoan.

telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailtza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74

botika txandak

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Ekainaren 24 eta 30 eta uztailaren 2, 5, 6, 11, 15, 17 eta 21.

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Ekainaren 25 eta 27 eta uztailaren 3, 9, 18 eta 24

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Ekainaren 23, 28 eta 29 eta uztailaren 4, 8, 10, 14, 19, 20, 23 eta 25.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Uztailaren 1, 7, 12, 13, 16 eta 22.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Ekainaren 26

zerbitzuak eta erabakiak

Oroimen Bulegoa, abian



Azpeitiko Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean, 1936-1945 urteetako udalerriko errealitatea ezagutzeko ikerketa jarri dute martxan. Egitasmoaren baitan, bulego bat ere prestatu dute herritarrek urte horietan errepresioa jasan zuten pertsonen edo senideei buruzko datuak eskatu eta emateko asmoz. Arduradunek, herritarren partaidetza funtsezkotzat hartzen dute, eta horregatik, parte hartzera animatu nahi dituzte azpeitiarrak: "Azpeitiar biktima guztien izenak jaso behar ditugu, zein ziren eta zer gertatu zen eurekin jakiteko, eta familiei eta herriari egia ezagutarazi behar diegu. Biktima asko daude dokumentatu gabe, beraz, biktimak beraiek edota beren familiak dira horren berri eman dezaketen bakarrak", agertu du Jabi Buces ikertzaileak.

Bulegoaren datuak

- Non: Udal Liburutegian
- Ordutegia: asteazken eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Bulegora joan ezin dutenentzat, bestelako bitartekoak ere jarri dira eskura:

- Telefonoa: 699 809 130
- Webgunea: www.aranzadi-zientziak.org
- Helbide elektronikoa: jbuces@aranzadi-zientziak.org

erabakiak

Ekainaren 3an egindako Udalbatzan honako erabaki hauek hartu ziren:

- 1.- Udalbatzak 2013ko apirilaren 1ean eta maiatzaren 6an egindako bilkuren aktak onartu ziren.
- 2.- Azpeitiko Plangintza Orokorrean Esklabak-Iturzulo eremurako Plan Bereziari behin betiko onarpena aho batez eman zitzaion.
- 3.- Esklabak-Iturzulo eremurako Hirigintza Hitzarmenari behin betiko onarpena aho batez eman zen.
- 4.- Azpeitiko Zarata Maparen dokumentuari hasierako onarpena aho batez eman zitzaion.
- 5.- Azpeitiko Udalaren eta bere erakunde autonomiadun eta merkataritza baltzuaren 2013ko kontu orokorra aho batez onartu zen.
- 6.- Azpeitiko Udalaren eta Loiola Berrikuntza Fundazioaren arteko hitzarmena aho batez onartu zen.
- 7.- Behar larriko egoerei aurre egiteko norbanakoei eta familieientzako udal-laguntzak: oinarriak eta 2014rako deialdia aho batez onartu zen.
- 8.- Gizarte Larrialdietarako laguntzen kopuruak aho batez zehaztu ziren.
- 9.- GFAREN eta Azpeitiko udalaren arteko hitzarmena, mendekoen harretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko, aho batez onartu zen.
- 10.- Gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak: oinarriak eta 2014rako deialdia, aho batez onartu zen.
- 11.- Azpeitiko Gazte lokalen gaineko bizikidetza araudiari behin betiko onarpena, aho batez hartu zen.
- 12.- Fracking ez mugimenduak aurkeztutako mozioa, Bilduren aldeko botoekin onartu zen. Hamaikabat abstenitu egin zen eta EAJ-ek berriz, kontra bozkatu zuen.
- 13.- Galdera eta erreguak.

Ingurumena zaintzeko proposamenak, gazteen eskutik

Eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan, 'Aztarna ekologikoa; ura eta energia' gaia landu dute



aztarna ekologikoa; ura eta energia, hori izan da 2013-2014 ikasturtean zehar Azpeitiko ikastetxeetako ikasleek Eskolako Agenda 21 ekimenaren baitan landu dituzten gaiak. Iraurgi, Karmelo Etxegarai, Urola eta Ikasberri ikastetxeetako 2.511 ikaslek hartu dute aurtengo ekimenean eta ikasturtean zehar, ingurumen arloko azterketak egin dituzte herrian.

Urte guztian egindako lana aztertu eta baloratu ondoren, Udalera etorri ziren Eneko Etxeberri alkatearekin bildu eta proposamenak egiteko. Udalbatza berezia maiatzaren 22an egin zen eta bertan proposatu zituzten hobekuntza batzuk honako hauek izan ziren:

- Herriko iturri guztietan, ura botoiari emandakoan bakarrik botatzen dutenak jartzea.
- Kirol instalazioetako dutxetan, uraren kontsumoa kontrolatzea.
- Euri-urak eta araztegi-tako urak berrerabili berdeguneak ureztatzeko edo kaleko garbiketarako.
- Herriko argiztapenean, LED bonbillak erabili eta eguzki panelen bidez argia egiten duten farolak jartzea.
- Herriar gutxi ibiltzen diren gunetan sentsore bidezko argia erabiltzea.
- Energia berriztagarrien ekoizpena sustatzea, plaka fotovoltaikoak jarritz.
- Gune urbanoak eta industrialak bidegorriz lotzea, herriarrak hauek erabiltzera bultzatuz.



Iaz abian jarritako ekimenari jarraipena emanez, Eskolako Agenda 21 egitasmoaren baitan Ideia Onenaren Saria antolatu da aurtengoa. Azpeitiko ikasleek ura eta energia aurrezteko ideiak aurkeztu dituzte eta bi talde izan dira sarituak. Batetik, Lehen Hezkuntzan Iraurgi ikastetxeko 5A gela izan da saritua proposatutako "Koloreen paleta" ideiarekin. Bestetik, Iraurgiko DBH-ko 4. mailako Ainhoa Odriozola, Ane Olabarria, Libe Bastida eta Begoña Iriartek ur kontsumoa kontrolatzeko txartel sistema diseinatzeagatik irabazi dute. Zorionak denei!



Herriak hartu du erabakia

3.573 azpeitiarrek hartu dute parte plazari buruzko herri-galdeketa



Oinezkoentzat eta kioskoarekin, horrelakoa izango da etorkizuneko Azpeitiko plaza. Proiektu irabazlea, berriz, Irudika estudioak aurkeztutakoa izan da. Azpeitiarrek hala erabaki dute Udalak antolatutako lehenbiziko herri-kontsultan. Galdeketa, ekaineko 13, 14 eta 15 asteburuan egin zen eta guztira, 3.573 azpeitiarrek (%29,53) hartu zuten parte bertan.

"Herriarrak zoriondu nahi ditugu, parte hartzeagatik. Datu onak dira. Gainera, dena oso ondo joan da, modu natural eta seriotasunean. Galdeketa gainera, iritzi desberdinak plazaratu ditu, eta eztabaidak modu naturalean sortu dira", agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

"Oinezkoentzat eta kioskoarekin, horrelakoa izango da etorkizuneko Azpeitiko plaza. Proiektu irabazlea, berriz, Irudika estudioak aurkeztutakoa izan da."

Hala ere, galdeketa hobetu daitekeela onartzen du Udalak, lehenbiziko aldiz egin dela hartu behar da kontutan eta "antolaketa ez da erraza izan. Baina etorkizunean izango dugu aukera hobetzen joateko".

Jarraipen Batzordea

Galdeketa datuak eskuan izanda, hurrengo pausoa Jarraipen Batzordea eratzea izango da, proiektua bozketaren emaitzetara eta Azpeitiko herriaren errealitatera egokitzeko. "Azpeitian Danborrada, sokamuturra... ospatzen ditugu, besteak beste, eta kontutan hartu behar dira. Batzordea hurrengo asteetan eratuko dugu eta irekia izango da, hau da, nahi duten herritarrek parte hartzeko aukera izango dute", aurreratu du alkateak.

Emaitzak

1.- Oinezkotu bai ala ez?

Bai: 2.360

Ez: 1.042

Zuri: 171

2.- Kioskoa, bai ala ez?

Bai: 2.132

Ez: 1.301

Zuri: 140

3.- Aukeratu hiru proiekturen artean:

Lehen aukera: 1.544

Bigarren aukera: 1.545

Hirugarren aukera: 417

Zuri: 66

Baliogabeak: 1

Hemenbuy.com, saltoki txikien denda

birtuala Azpeitia eta Azkoitiko dendei zuzendutako plataforma digital berria aurkeztu da



azpeitia eta Azkoitiko saltoki txikiek salmentak on-line egin ahal izateko tresna berri bat garatu dute bi herrietako Udalek, Iraurgi Berritzenek eta Elkarmedia enpresak. Plataforma digital berriak www.hemenbuy.com webgunea izango da eta bi herrietako denda birtuala izatea du helburutzat. "Merkataritza sustatzea garrantzitsua da bi herrientzat, garai zailak bizitzen ari dira gaur egun eta azken urteetan saiakera berezia egiten ari dara udaletatik laguntza emateko. Hau beste aukera bat da", adierazi du Eneko Etxeberrria alkateak, eta Udaletik bertako merkataritza sustatzeko ahalaginetan jarraituko dutela berretsi du.

“Webgunea lehenbiziko fasean dago eta ezin da erosketarik egin, baina bi herrietako saltokiak bertan parte hartzera animatu nahi dira”

Webgunea oraindik lehenbiziko fasean dago, eta oraindik ezin da erosketarik egin, baina bi herrietako saltokiak bertan parte hartzera animatu nahi dituzte arduradunek; "internetek eskaintzen dien aukera hori baliatzera animatu nahi ditugu dendariak, gainera, parte hartzen dutenentzat diru-laguntza bereziak ditu Udalak, Sustapen Ekonomikoaren baitan.


Oso merke lor dezakete webgunea, beraz, animatu eta hartu parte", gaineratu du Etxeberrriak.

Plataforma hori kudeatu eta bertan parte hartu nahi duten dendariei laguntzeko teknikari bat jarri du Iraurgi Berritzenek, eta interesa dutenek beregana jo behar dute: 636 298 520 telefonora deituta edo eazkune@iraurgiberritzen.net helbidera e-mail bat bidalita.

Orain ahalik eta denda gehien batzea nahi dute arduradunek, eta dagoeneko hasi dira saltokiak bisitatu eta plataforma aurkezten. Behin dendak sartuta, uda ondoren, erosleentzat martxan izatea espero dute webgune berria.

Igerilekuko eraikinaren espazioa handitzeko lanak hasiko dira

Espazioak gainkarga handia du eta herritarren eskariari ezin zaio erantzun egokia eman



azpeitiko Udalak igerilekuaren eraikina handituko du. Lanek eraikinean bakarrik izango dute eragina, hau da, ur-eremua mantendu egingo da. Modu honetan, igerilekuko eraikuntzak 1.400 metro karratu eraikiak irabaziko ditu.

Lan hauek burutzeko arrazoiak ugariak diren arren, espazio fisikoaren gainkarga eta irrisgarritasun legea bete ezina nabarmendu du Manuel Unanue Kirol batzordeburuak: "Azpeitiko Kirol Patronatuak 5.400 bazkide baino gehiago dituela ikusirik, instalazioa txikia gelditu da. Herritarren eskaria ezin da asetu, ezta erantzun egokia eman ere, eta sor daitezkeen zerbitzu berriak ezin dira antolatu, espazio faltagatik. Bestalde, herritarren proposamen eta iritzia asko jaso ditugu igogailua jartzeko esanez. Kontutan hartu behar dugu igerilekuaren eraikinak 30 urte dituela eta gaur egun, oso zaharkituta geratu dela".

“Pilates, gimnasia eta erretiratuaren saioak igerilekutik kiroldegira edo Urola Ikastolara aldatuko dira, areto dantzen kasuan, tokia finkatzeko dago”

Obra honekin, espazio fisikoa irabaziko da, guztira 1.400 metro karratu eraikiak, eta horrekin, aldagela eta ariketa egiteko gune desberdinen antolaketa hobetuko izango da. Lanak uztailan hasi nahi direla aurreratu du Unanuek; "ekaina amaierarako lanak esleitzea da helburu, obra uztailan hasteko. Obrak zazpi hilabete iraungo ditu eta 2015eko otsailerako amaituta egotea aurreikusten dugu". Lanek ez dute eragin handirik izango igerilekuan, eta herritarrek beti bezala joan ahal izango dira igeri egitera. Aldaketa izango da, pilates, gimnasia eta erretiratuaren saioa igerilekutik kiroldegira edo Urola Ikastolara aldatuko direla, eta areto dantzen kasuan, tokia finkatzeko dago.

Aurrekontuari dagokionez, 1.664.789 euro kostatuko da lan guztia, "azpimarratzekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak 550.000 euroko laguntza eman duela eta Eusko Jaurlaritzak ere diru ekarpena egingo duela espero da".



Behar gehien dutenei laguntzak emango dizkie Udalak

Gazteei, industria eta herritarrei zuzendutako 2014 urterako diru-laguntzen partidak zehaztu dira

egungo krisi ekonomikoa gogor ari da kolpatzen Azpeitia. Jakitun gara herriko norbanako eta eragile desberdinak gaizki ari direla pasatzen. Egoera honi itzulia emateko baliabide eta eskumen gutxi ditu Udalak, baina gure esku dauden aukera urriei ahalik eta etekin handiena atera nahi diegu. Horregatik, behar gehien dutenei zuzendutako laguntzak eskainiko ditu.


Laguntzak hiru talde edo eragilei zuzendutakoak dira, krisiaren ondorio larrienak pairatzen ari direnentzat.

“Laguntzak hiru talde edo eragilei zuzendutakoak dira, krisiaren ondorio larrienak pairatzen ari direnentzat.”

Gizarte larrialdietako laguntzak behar dituzten herritarrek.

**Gazteak.
Industria.**

“Herriko eta bailarako ekonomia suspertzea eta krisiaren eraginez gehien sufritzen ari diren herritarrei laguntzea da Azpeitiko Udalaren lehentasuna. Eta herritarrek ere berdina agertu izan digute, horregatik, pausoak ematen jarraituko dugu, eta laguntza hauen bidez, herritarren ongizatea hobetu ahal izatea espero dugu”, azaldu du Eneko Etxeberria alkateak.



izarte
arloko laguntzak



Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Gizarte Larrialdietarako Laguntzaz gain, Azpeitiko Udalak bere laguntza propioak ditu eremu honetarako eta 2014 urterako, 129.000 euro bideratuko ditu.

“Azpeitiko Udalak 129.000 euro bideratuko ditu 2014 urtean gizarte laguntzetara”

Eneko Etxeberria alkateak eta Leire Etxaniz Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak adierazi dutenez, laguntza aktiboak izatea da asmoa, eta horregatik, aurrerantzean, laguntza hauek jasotzen dituzten herritarrek betebeharrak batzuk ere izango dituzte: “Herritar ugari ari da sufritzen Azpeitian eta laguntza hauek bermatzea beharrezkoa da. Herritar guztiek dute laguntza eskatzeko eskubidea, edozeinek eska ditzake, baina aurrerantzean betebeharrak ere izango dituzte. Honela, laguntza jasotzen duten herritarrek konpromiso orri bat bete

beharko dute eta besteak beste, euskara ikastaroetara joan, herriko ekimen desberdinetan parte hartu edota Udalak antolatutako formazio ikastaroak egin beharko dituzte”.

Gizarte arloko laguntzak, honako arlo hauean sortutako gastuak estaltzeko izango dira:

- Etxebizitza alokatzea.
- Ko-errentamendua, azpierreantamendua, ostatu-ematea eta apopilotza.
- Etxebizitzaren aseguruia.
- Zorrak (etxebizitza).
- Etxebizitzaren mantenua (argia, gasa, ura...).
- Etxebizitzaren mailegua.
- Oinarrizko beharrei dagozkien gastuak.
- Salbuespenezko izaeraz, hemen aurreikusiak ez dauden gizarte-larrialdiko beste kontzeptu batzuen gastuetarako ere eman ahal izango dira diru-laguntzak, Udal teknikariek baloratu ondoren.

Berrikuntza moduan, formazioaren aldeko apustua egingo du Udalak. Honela, langabezian dauden herritarrek formazioa jasotzea erabakitzen badute, Udalak bi modutan lagunduko die; batetik, ikastaroaren matrikularen %90 ordainduz eta, bestetik, beste herri batera joan behar dutenen kasuan, garraioa ordaintzen ere lagunduko zaie. Formazioko laguntza hauek jaso ahal izateko, ezinbeste-

koa izango da 30 urte baino gehiago izatea, eta gutxienez, 2 urtez langabezian egotea.

Diru-laguntza hauetako bak eskatzeko, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara joan behar da eta eskaera egin eta diru-laguntza jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da hiru urtez Azpeitian erroldatuta eta Euskal Herrian sei urtez erroldatuta egotea.



Etxebizitza politika berri baten beharra ikusten du Udal Gobernuak. Azpeitiko Udalarentza, etxebizitza berriak sortu beharrean, dagoena ondo kudeatzean dago gakoa, eta horregatik, Azpeitian dauden etxebizitza hutsak merkaturatzeko eta alokairua sustatzeko araudia egin du.

“Azpeitian dauden etxebizitza hutsak merkaturatzeko eta alokairua sustatzeko araudia egin du Udalak”

“Azpeitia Lantzenen landu dugu gaia, buelta asko eman dizkiogu eta Kontseiluak aurkeztu dio Udalari. Ekarpen guztiak jaso dira eta lehenbiziko aldia da horrelako zerbait planteatzeko delat. Aurrekontuetara eraman genuen eta 150.000 euro bideratzea erabaki zen”, esan du Eneko Etxeberria alkateak.

Araudi berri honekin, etxebizitza politika berri batera iristeko pausoak abiarazi nahi ditu Azpeitiko Udalak, eta horregatik, gazteek etxebizitzak alokatu ahal izateko laguntzak dira:

“Etxebizitza problematika baten aurrean genduen eta horren aurrean, Udalak bi aukera zituen; etxe gutxi batzuk egin azpeitiar gutxi batzuei lagunduz edota, plan zabal bat egin. Dagoena hartu eta ondo kudeatzen saiatzea, apustu politikoa garbia da. Gaur egungo gazteek lanik ez dute, etxean bizi dira gurasoekin eta laguntzarik ez dute. Etxebizitza Planari esker, independizatzeko aukera eskaintzen zaie”, agineratu du Etxeberriak.

Gazteek bete beharreko baldintzak, honako hauek dira:

- 18 eta 35 urte bitartean izatea.
- 10 urtez Azpeitian erroldatuta egotea.
- Beste laguntzarik ez jasotzea.
- Gutxieneko irabaz sarrerik ez dago, baina gehienez 28.000 euro irabaztea. Bikoteen kasuan, bien artean 35.000 euro gehienez.
- Ekaina aurretik alokairuan dauden herritarrek, eta pisuagatik 650 euro baino gutxiago ordaintzen dutenek jaso ahal izango dute laguntza; kasu honetan, gehienez, errentako 250 euro ordainduko dizkie Udalak. Aldiz, aurrerantzean alokairura joaten direnek, 550 euro baino gutxiagoko alokairua ordaindu beharko dute laguntza eskatu ahal izateko; horiei errentaren %50 ordainduko die Udalak, eta gehienez 250 euro jasoko dituzte.

“150.000 euroko partida ez dela agortuko aurreikusten dugu, beste herriekin konparatuta diru asko jarri dugu eta hortaz, geratuko den diruarekin zerbait egiteko erabiliko dugu. Kontseiluan landuko den arren, hondamen egoeran dauden etxe


nahiz orubeak eraberritzea edota parke publikoak indartzeko erabiltzea pentsatzen ari gara”.

Etxebizitza Plana, Udalak iaz egindako Azpeitia 2025 Plan Estrategikoaren baitan kokatzen da, izan ere, etxebizitzek gain, ekonomia suspertzea ere aurreikusten da ekimen honekin; “Legealdia hasi zenetik, etxebizitzaren politika berritzeko esfortzua egin dugu, eta, horren adibide, etxe hutsetako Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergari ezarritako %50eko errekarua. Etxea hutsa edukitzeak kostu bat dauka, eta orain, alokairua sustatzean, etxe-jabeak animatu nahi ditugu etxe hutsak alokairuan jartzera. Horrela, aktibitate ekonomikoa bultzatzen da”.



Laguntzak azaltzeko bilera

Gizarte beharrei erantzuteko eta gazteen artean alokairua sustatzeko diru laguntzak ahalik eta herritar gehiengoarengana iristea nahi du Udalak eta horregatik, laguntzen azalpenak emateko bilera irekia egin zuen. Honela, Udal ordezkariak eta Gizarte Zerbitzuetako eta Etxebizitza sailtako teknikariak udaletxeko areto nagusian bildu ziren gerturatutako herritarrekin. Laguntzen inguruko zehaztapenak emateaz gain, azpeitiarrek zituzten duda eta zalantzak argitu zituzten.



ndustria



Krisia bortizki pairatzen ari den sektoreetako beste bat industria da. Azpeitian izan duen pisa garrantzitsua da eta horregatik, ahalegin bereziaz egiten ari da Udala, industria berreskuratzeko. Ahalegin horretan, herriarentzat eta bailararentzat orokorrean estrategikoa den hitzarmena sinatu du Udalak Arrasateko Saiolan enpresa eta berrikuntza zentroarekin.

“Herriarentzat eta bailararentzat estrategikoa den hitzarmena sinatu du Udalak, Saiolan enpresa eta berrikuntza zentroarekin ”

Eneko Etxeberria alkateak akordio estrategikotzat jo du hitzarmena; “Krisiaren eraginez, industria galtzen joan da Azpeitian eta hori erregeratzeko metodologiarik eta gaitasunik ez dugu izan; egia da ekintzailetasuna badagoela Azpeitian, baina autoenpleguari lotutakoa, eta ez dago proiektu industrialak sortzeko egitasmorik. Horregatik, Saiolanen laguntzarekin, ekintzailetasun horiek bilatu, industria sortu

eta proiektuak martxan jartzen saiatuko gara. Udalak 115.000 euro ipiniko ditu horretarako”.

Hitzarmena hiru ardatz nagusitan oinarritzen da eta 5 proiektu garatuko dira; Hiru ardatz nagusitan banatzen diren 5 proiektu hauek

- 1. Ekintzailetza Sustatzea**
- 2. Ekintzailetza proiektuak garatzea**
- 3. Hezkuntza eta prestak**

“Ekintzailetza sustatzea” ardatza

Urola Erdiko pertsona ekintzaileek eta enpresek beren burua garatzeko eta, azken-azkenean, enpleguaren sorrera sustatzeko beharrezkoak diren giro egokia eta mekanismoak sortzea eta horiei bultzada eta orientabidea ematea.

1. Proiektu generikoak

Produktua-Merkatua-Teknologia (PMT) ardatzak aintzat harturik, enpresentzako ideiak eta aukerak eskaintzeko ahalmena izateagatik in-

teres berezikotzat identifikatu diren sektoreak eta jarduera-esparruak aztertzea.

Zehazki, honako proiektu estrategiko hauek identifikatu dira interesgarritzat Urola Erdia eskualderako:

- Teknologia garbiak
- Laguntzarako teknologiak

2. Proiektua: Nazioarteko antena eta kanpoko lankidetzak

Nazioarte mailan enpresa, ikerketa-zentro, ekintzailetza bultzatzeko zentro, unibertsitate, gobernu, arrisku-kapitaleko sozietate eta bestelako erakundeekin lankidetzak-sareak eta aliantzak bilatzea eta ezartzea, Urola Erdian enplegua sortzen eta lehiakortasuna bultzatzen laguntzeko.

“Ekintzailetza-proiektuen garapena” ardatza

Enpresa berriak sortzeko bultzada ematea eta lehendik daudenak dibertsifikatzea, negozio-aukeren azterketak eginez, prototipoak eginez, pertsona ekintzaileak bilatuz eta haiei bultzada emanez, eta, orobat, eskaintza publikoaren eta enpresa-proiektu berrien arteko bitartekaritza lanak egitea. Horretarako, ardatz hau da oinarria: Ekintzailetza Sustatzea.

3 Proiektua: Enpresa-sustapena

Eskualdeko ekintzaile eta enpresei laguntzea eta haiekin kolaboratzea enpresak dibertsifikatzeko edota enpresak sortzeko eta optimizatzeke proiektuetan, eta zehazki, zeregin hauetan: bideragarritasun-azterketak egiten, produktua garatzen, horien prototipoak egiten eta industrializatzen eta jarduera berria hezuramamitzen.

4. Proiektua. Industria-sektore kritikoei bultzada ematea

Industria-maparen proiektuak aukera eman- go du kinka larrienean dauden sektoreak identifikatzeko, bai eta Urola Erdiko industria-sarearen gaitasunak zein diren jakiteko ere, modu horretara hazten ari diren jarduera edota merkatuetarako eboluzioa sustatzeko. Behin bultzatu beharreko sektoreak hautatuta, haxe litzateke sektore bakoitzetarako helburua: sektore horretako enpresen arteko lankidetzak-esparruak zehaztea, enpresa bakoitzak nahiz kolektiboak izan ditzakeen kezkak identifikatuz, horiek eskutik izango baita aukera enpresen gaur egungo edota etorkizuneko negozioak garatzeko eta mantentzeko eta zenbait ekimen zehatz martxan jartzeko.

Hezkuntza eta prestakuntza aldetik gaitasunak eskuratzea” ardatza

Bestelako hezkuntza-ekimen baten Jarduera Plana zehaztea; bereziki Lanbide Heziketara eta Prestakuntza Iraunkorrera bideratutako hezkuntza-ekimena.

5. Proiektua. Bestelako hezkuntza-ekimen bat ezartzea

“Urola Erdiko lanbide heziketako ereduari buruzko gogoeta” eta eskualdearekin loturiko beste zenbait informazio garrantzitsu (Nazioarteko Antena, Proiektu generikoak...) oinarri hartuta, helburua izango da bestelako hezkuntza-ekimen baten Jarduera Plana identifikatzea, zehaztea eta gauzatzea. Bereziki Lanbide Heziketara eta Prestakuntza Iraunkorrera bideratuko da hezkuntza-ekimen hori, enplegua sortzea xedetzat harturik.

Urrestillako plaza, berrituta



Urrestillako plazak itxura berria du. Eliza aurea, bi gutan banatuta zegoen lehen, baina orain itxura bateratua du oinezkotasun eta haurrentzat parkea ezarri ondoren. 2013ko Denon Artean prozesuan adostu, eta urtean zehar Urrestillako Herri Batzordearekin landu ondoren, 2014ko Denon Artean ekimenaren baitan ontzat eman zuten bizilagunek proiektua eta lanek, 200.000 euro inguruko aurrekontua izan dute.

Puntu beltzak, arrosaz margotzen



Jose Artetxe kaletik Sanjuandegira doan lurpeko pasabide iluna kolore argiz margotu dute. Ekimena, Iraurgi Ikastetxeko Amaia Loiolak, Sara Sudupek, Nora Ugartetxeak, Inge Oiarzabalek, Leire Peñak, Garazi Etcheberriak eta Izaro Lizuriak osatzen duten Mare More taldeak antolatu du eta herriko talde eta eragile desberdinek bat egin dute, pintaketan lagunduz. Hermitar ugari, neskak batik bat, ez ziren gauez pasabide honetatik igarotzen ausartzen eta egitasmo honek, puntu beltzak identifikatu eta margotzeaz gain, herritarrek kalean lasai ibili ahal izatea bilatzen du.

Senidetza, arlo ekonomikora zabalduz



hazparneko ordezkari bat Azpeitian izan da bi herrien arteko elkarlana sendotzen jarraitzeko asmoz. Honela, kultura ekintzak, kirola eta festez gain, haratago joateko asmoarekin, bi udalerrien arteko senidetza arlo ekonomikora zabaltzeko intentzioa agertu zuten ordezkariak, bereziki lehen sektorearekin zerikusia duten aktibitateei, eta industriari. Horregatik, bi herriek duten industriaren elkarlanerako aukerak aztertzen ari dira, Udalek duten elkarlana aktibitate ekonomikoan ere isla izateko elkar-trukean.

Ibaia garbiagoa, auzolanean

Guztira, 100 pertsona bildu eta elkarlanean garbitu dute ibaia



bi kontainer handi zikinkeriaz beteta. Hori izan zen ekainaren 18an egindako ibai garbiketaren ondorioa. Azpeitiko Udalak, herriko ikastetxeek eta Baigera Erretiratuen elkarteak bat egin eta Urola ibaia garbitu zuten. Guztira, 100 ikasle, erretiratu eta norbanako bildu ziren eta Loiolatik hasi eta Lasaora bitarteko ibai zatia garbitu zuten. Elkarlanaren eta auzolanearen lanak fruitu onak eman zituen beste urte batez, eta bi kontainer zikinkeriaz bete ziren; "erosketak egiteko karritoa, haurrentzat kotxeko eserlekua, baloiak, plastikoak, burniak... ikaragarria da zer aurkitu daitekeen ibaian zehar. Egoera honen aurrean, herritarrei arduraz jokatzeko eskatu nahi diegu, eta ahalik eta hondakin gutxien sortzeko bidea prebentzioa dela gogoratu nahi da. Izan ere, ez da ibaira jaurtitzen den zaborra bakarrik, kalean zehar botatzen dena, haizeak ibaira eramaten du", agertu du Leire Etxaniz Ingurumen saileko zinegotziak. Azpeitiko Udalak eskerrak eman nahi dizkie ibai garbiketa egitera animatu ziren herritarrei.



Estali gabeko igerilekua



Irailak 14ra arte, estali gabeko igerilekua zabalik izango da 11:00etatik 20:00etara bitartean.

**GOZATU,
BUSTI,
ONDO PASA!**